# Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2003ko abenduaren 19a / 566. zenbakia



## HORRA, GURE OLENTZERO!

Olentzero Marrazki Lehiaketako marrazki irabazlea.
Egilea: Irati Madariaga, 10 urte.

GABONETAKO KORTZERTUA: BIHAR, ZAPATUA, 22:30AN/5 • FUTBOLA: BERGARA-AMAIKAK BAT/8

AZALA: MIREN ALMARAZ / MARRAZKIA: IRATI MADARIAGA



**Figfort lentzeria**
GRACIAN MERTZERIA
Bidekurutzeta 6



**Levi's jaka eta gona**
CRISTINA JANTZIDENDA
Arruriaga 44



**Ferrera jaka eta prakak**
LAKET JANTZIDENDA
Irala 5



**Izara jokoa**
UGALDE MERTZERIA
Bidekurutzeta 13



**Zaldiko-maldikoa**
JOLAS OPARI DENDA
Barrenkale 27




**Punto Blanco barruko arropa**
GALLASTEGI KONFEKZIOAK
San Pedro 15



**Belarritakoak eta lepokoa**
HARAIA ZILARREZKO BITXIAK
Boni Laskurain 4



**Grifone jaka eta prakak**
XAMARTIN KIROL DENDA
Ibargarai 20

**Gabonetan,**
**bai**
**ederki**
**herriko**
**dendetan**

## ATREBENTZIAEZPADA/ Erosten dozu loterixarik Gabonetan? Eta urtian zihar?



**BENITA POZO**
**58 urte**

Loterixa gutxi erosten dot nik. Seme-alabek emoten doste. Apur hori Gabonetan erosten dot. Bestela, urtian zihar ez dot bape erosten. Gizonak Primitibia egitten dau.



**VALEN KALBOETXEAGA**
**36 urte**

Bai, erosten dot, baiña askorik ez. Gabonetan, batez be, burutik pasatzen jatenian. Bestela, urtian ziar ez dot erosten. Koadrillan, igoal, afarin bat egin eta gero, zeozer sobrau ezkero...



**IÑAKI ARREGI**
**58 urte**

Bai, zeozer bai. Nik uste dot Gabonetan danok pikatzen dogula. Hainbeste entzuten da-eta... Urtian zihar, bestela, gutxiau erosten dot, tankian behin, kanpora jundakuan-edo.



**ELVIRA HARO**
**37 urte**

Bai, erosten dot Loretixia Gabonetan. Aman, ahiztian eta hiruron artian erosten dogu. Suertia tentau bihar da. Urtian zihar be hirurok jokatzen dogu asteburuko loterixia.



**ANA ISABEL RUIZ**
**38 urte**

Gabonetan erosten dot, bai. Dagueneko erositta daukat, bost zenbaki erosti dittut. Bestela, urtian zihar batzutan be erosten dot loterixia, baiña batez be Lotua egitten dogu.



**MARIA TERESA BRUÑA**
**66 urte**

Urte osuan jokatzen dogu. Bueno, gizonak, nik ez. Urtian zihar nik ez ot erosten. Nik Gabonetan erosten dot gizonagandik aparte. Gizonak beria erosten dau eta nik neuria.

## TXALOAKETATXISTUAK



**TXALOAK ITURRIA MARTOKON** Martoko auzoan bizi den herritar batek deitu digu. Auzoa egokitzeko hainbat obra egin ditu Udalak eta pozik azaldu da horregatik; beharra bazegoela gehitu du. Horrekin batera, iturria jarri dutela gehitu du Martokoko auzotarrak, eta iturria jartzeko ideia txalogarria iruditu zaio; batik bat, ume asko ibiltzen delako inguruan jolasean eta haiengan pentsatzen. /M.B.

## ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK / 6

**Herri Mugimendua**

Bergarako Herri Mugimenduak hainbat ekitaldi antolatu ditu asteburorako. Gaztetxean izango dira.

KIROLAK / 8

**Pilotari bergararrak nagusi**

Aretxabaletan jokatu den eskuz binakako pilota txapelketan bikote bergarrak nagusitu dira.

KULTURA / 10

**Marrazki Lehiaketa**

Jardunek umeendako antolatutako Olentzero II. Marrazki Lehiaketak baditu irabazleak.

## ASTEKODATUA

# 750

**MARRAZKI LEHIAKETAN PARTE HARTU DUTENAK**

Jardun elkarteak antolatutako Olentzero Marrazki Lehiaketan 750 haurrek hartu dute parte. Ikastetxe guztietako haurrek hartu dute parte; lehen mailatik hasi eta seigarren mailara arte.

## BESTEEKESANA

**“Ni Bergaratik nator, eta han, pilotaleku ugari dago. Asko erabiltzen dira, baina jendeak paletaz jokatzen du, gomazko pilotarekin eta baita frontenisean ere. Eskuz oraindik ere jokatzen da, baina zer gertatzen da zestarekin, erremontearekin edo palarekin. Eta hori da federazioari eskatzen dioguna: neurri zehatzak modalitate horiendako, eta emakumeak sartzeko pilota kirolean. (...) Eskola kirolaren gainera, sintonia ona dago federazioekin. Eusko Jaurlaritzak ikasturtea bukatu aurretik Kirol Plana onartuko du. Kirol Planak Gipuzkoako eredua jarraitzen du, lehiara bereziki zuzenduta ez dagoen kirol askotariko jarduera, hain justu ere.**

**IÑAKI UGARTEBURU /**
**Diputazioko Kirol zuzendaria**
**'El Diario Vasco'/03-12-15**

## BERAIEKDIÑOE/ Iñigo iñurrategi



## *Azak bai, AHTrik ez!*

Barkatuko dostazue fededunok, baina Gabon garai hau gero eta nazkagarrixaua eitten jat. Edozein egunetan Mondragoeko Eroskira juan besteik ez dago abiadura haundiko kontsumismo eredua bertatik bertara bizitzeko. Neurri barik kontsumitzen dogu eta horrek, ustez zoriontsu eitten gaittu.

Berdin jaku gu bezelako milioika pertsona miserixa gorrixenian egotia. Berdin jaku zabortegixak gainezka egotia. Narrua sendo eta begixak itxututa dauzkou.

Progresua omen, aurrera bidia, eta badirudi batzun ustez aurrera eitteko bide bakarra dagola, eurena, euskal zein espainiar alderdi kontserbadorien pentsamendu neoliberal globalizadore unico-dunena.

Azken astiotan Euskal Herrixan AHTandako proposau zan Y proiektua "Quick Start" zerrenda dontsu horretan agertu ez izanak garbi laga dau hemen marrazo klase askotarikuak dauzkoula inguruan. Gezurra gezurran gainian erabili dabe batzuk zein bestiek, eta zorioneko "garapen jasangarrixa" komuneko papela bezela erabili. Medixo guztixak erabili eta diru mordo bat gastau dabe Bruselas-eko erabakitzailiak presionatzeko eta ulertu eziñian nabil ze interes ilun egon leizken tartian MU-ko errektore jauna be harro agertzeko AHT-an proiektuan alde.

**“Ezin dot ulertu ze interes ilun egon leizken MU-ko errektorea be harro agertzeko AHT-an proiektuan alde”**

Progresua omen, aurrera bidia, eta deskuiduan trenoi guretik pasatzen ez bada miserixiak jo ta azak jatera bueltau biharko garela diño gure garraio sailburuak. Olentzero, aurten gezurretan ibili dien danei iketz sakua ekartzekotan bahaiz, ederki mindu bihar jak bizkarroi. Akaso samurraua eingo jak azaburu bana partiduta...

Ai! Gabonak, urte sasoi berezixa... turroi gutxiau eta aza gehixau jaten hasi biharko dogu, badaezpada be.

Berrigara
Irizar Jauregia• Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Monika Belastegi, Aintzane Irizar
MAKETAZIOA
Miren Almaraz

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel Elkoroberezibar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:
Eusko Jaurlaritzako Kultura saila
Gipuzkoako Foru Aldundia
Bergarako Udala
Antzuolako Udala
Elgetako Udala

## GUARDIAKO FARMAZIAK

**EGUBAKOITZA, 19**
MOZOS. Iparragirre 2. . . . . . . . 943 76 12 15

**ZAPATUA, 20**
CAMACHO. Oxirondo 4. . . . . . . 943 76 11 74

**DOMEKA, 21**
CAMACHO. Oxirondo 4. . . . . . . 943 76 11 74

**ASTELEHENA, 22**
ZABALA. Barrenkalea 25. . . . . . 943 76 16 87

**MARTITZENA, 23**
GUALLAR. San Antonio 5 . . . . . . 943 76 11 05

**EGUAZTENA, 24**
ESTELLA. Matxiategi 5 . . . . . . . 943 76 19 63

**EGUENA, 25**
MOZOS. Iparragirre 2. . . . . . . . 943 76 12 15

## TELEFONO JAKINGARRIAK

**OSASUNA / LARRIALDIAK**
Anbulatorioa (txanda) . . . . . . . . 943 03 54 00
Bergarako Udaltzaingoa . . . . . . . 943 77 91 06
Antzuolako Udaltzaingoa . . . . . . 943 76 62 46
Ertzaintza . . . . . . . . . . . . . . . . 943 53 47 20
Osasun etxea . . . . . . . . . . . . . 943 76 24 40
Asepeyo . . . . . . . . . . . . . . . . . 943 76 16 43
Pakea . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 943 76 13 49
Angiozarko medikua . . . . . . . . . 943 78 90 27
Antzuolako medikua . . . . . . . . . 943 76 62 23
Odol emaileak. . . . . . . . . . . . . 943 76 16 24
Alkoholiko Anonimoak. . . . . . . . 943 76 51 06

**GARRAIOAK**
Taxiak. . . . . . . . . . . . . . . . . . . 943 76 19 50

**UDALA**
Bergarako Udaletxea . . . . . . . . . 943 77 91 00
Antzuolako Udaletxea . . . . . . . . 943 76 62 46
Udal Artxiboa . . . . . . . . . . . . . . 943 77 91 32
Igerilekuak . . . . . . . . . . . . . . . 943 76 20 51
Kultura etxea. . . . . . . . . . . . . . 943 77 91 58
Liburutegia . . . . . . . . . . . . . . . 943 77 91 62
Kiroldegia . . . . . . . . . . . . . . . . 943 76 56 41
Mizpirualde egoitza . . . . . . . . . 943 76 13 68

**BESTELAKOAK**
Epaitegia . . . . . . . . . . . . . . . . 943 76 14 92
Erregistroa . . . . . . . . . . . . . . . 943 76 13 15
Jardun . . . . . . . . . . . . . . . . . . 943 76 36 61
Idolaz. . . . . . . . . . . . . . . . . . . 943 76 65 08
Erretiratuen etxea. Bergara . . . . . 943 76 21 40
Antzuolako erretiratuen elk. . . . . 943 76 62 71
Postetxea . . . . . . . . . . . . . . . . 943 76 26 85
Bedelkar. . . . . . . . . . . . . . . . . 943 76 04 68
Akulu AEK. . . . . . . . . . . . . . . . 943 76 05 18
Udal Euskaltegia . . . . . . . . . . . . 943 76 44 53
Bergarako notariotza . . . . . . . . . 943 76 10 73

## MEZAK

**San Pedro**
Domekak: 09:30, 12:30.
Zapatuak eta lanegunak: 19:00.
**Santa Marina**
Domekak: 11:00, 13:00.
Zapatuak: 19:00.
**Sierbak**
Lanegunak: 19:30
**Osintxu**
Domekak: 12:30.
Zapatuak: 19:00.
**Elosu**
Domekak: 10:30.
**Ubera**
Domekak: 10:30.
**San Juan**
Domekak: 11:00.
**Elorregi**
Domekak: 10:30.
**Labegaraieta**
Domekak: 11:00.
**San Lorentzo**
Zapatuak: 20:00.
**Angiozar**
Domekak: 11:30.
**Moja Zaharrak**
Lanegunak: 09:00.
Zapatuak: 11:00.
**Mizpirualde**
Lanegunak: 11:45.
Zapatuak: 17:30.
**Antzuola**
Domekak: 09:00, 11:30.
Zapatuak eta lanegunak: 19:30.
**Uzarraga**
Domekak: 10:00.
**Elgeta**
Lanegunak: 09:00.
Zapatuak: 19:30.
Domekak: 12:00.

**URTE-MEZAK**
**Santa Marina**
Hileko bigarren domekan, 10:30ean eta 13:00etan.
**San Pedro**
Hileko hirugarren domekan, 09:30ean eta 12:30ean.

## OHARRAK

**1985EAN JAIOTAKOEN BAZKARIA ABENDUAREN 24AN**
1985ean jaiotakoen bazkaria abenduaren 24an. Eguna hurbildu ahala, bazkaria zein tokitan egingo duten zehaztuko dute.

**IKASTAROAK KZGUNEAN**
KZGuneak herritar guztiendako informatika ikastaroak eskaintzen ditu. Besteak beste, Interneten nabigatzeko eta prestakuntzako ikastaroak antolatu dituzte. Argibideak Irizar jauregiko (Barrenkalea 33) lehen solairuan edo 943 76 73 24 telefono zenbakian.

**BEDELKARREN ZOZKETA**
Bedelkar herriko dendarien elkarteak 1.000 euroko erosketa bono bat eta 500 euroko beste lau bono zozketatuko ditu Gabonetan.

**ESKI IRTEERAK POL-POL ELKARTEAREKIN**
Pol-Pol Mendizale Elkarteak urtarrilaren 23tik 25era Baqueiran eskiatzeko irteera antolatu du. Argibideak Pol-Poleko bulegoan, aste barruan 19:00etatik 20:30era, edo 943 76 48 51 telefono zenbakian.

**GURASOEI ZUZENDUTAKO IKASTAROA**
Udaleko Euskara Zerbitzuak guraso direnei zuzendutako bi ikastaro antolatu ditu: jolas eta kantu ikastaroa batetik eta ipuin kontaketa bestetik. Ikastarook otsaileko bigarren astean izango dira. Argibideak: 943 77 91 66.

## JARDUNEN AGENDA

**ASTE BUKAERAKO AGENDA**
Txapligu taldekoek jaialdi prestaketa izango dute zapatuan Arrizuriagan, 16:00etan.Domekan, berriz, Santo Tomas jaialdia izango da Arrizuriagan bertan, 16:00etan hasita.

## URBANOEN ORDUTEGIA

**San Lorentzo / San Juandik irteerak**
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

**Labegaraieta / Olabarrenetik irteerak**
07:20, 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoloia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

## ORAIN DELA 10 URTE BERRIGARAN

# Futbol Federazioaren ereserkia, 'bergararra'



Udal Musika Bandak, Orfeoiak, Aritzetak, Orfeoi Gazteak eta Musika Eskolako Tipleen abesbatzak Gipuzkoako Futbol Federazioaren ereserkia aurkeztu zuten Anoetan, Euskadi-Bolivia partiduaren atarian. Alfredo Gonzalezek eta Valen Moñuxek konposatu zuten ereserkia.

## BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

### *"Fiua"*



GORKA ORTEGA

Txistu.
*—Fiua entzun orduko etortzen da txakurra.*

## HAU GIROA!

**MINIMOA** Eguaztena, 10 — **0 ºC**

**MAXIMOA** Zapatua, 13 — **14 ºC**

**ASTEKO EURIA** (l/m²) — **18,8 L**

| | Max. | Min. | Euria |
|---|---|---|---|
| Eguaztena, 10 | 12 ºC | 0 ºC | - l/m² |
| Eguena, 11 | 13 ºC | 2 ºC | 10,7 l/m² |
| Egubakoitza, 12 | 12 ºC | 8 ºC | 1,2 l/m² |
| Zapatua, 13 | 14 ºC | 8 ºC | 0,8 l/m² |
| Domeka, 14 | 13 ºC | 6 ºC | 6,1 l/m² |
| Astelehena, 15 | 12 ºC | 8 ºC | - l/m² |
| Martitzena, 16 | 8 ºC | 1 ºC | - l/m² |

San Juan auzoan jasotako datuak

## ASTEKO FILMAK

### 'CARMEN'

**ZUZENDARIA:** VICENTE ARANDA. **AKTOREAK:** PAZ VEGA, LEONARDO SBARAGLIA.

**HARIA.** Prospero Merimee idazle frantsesak XIX. mendearen erdialdean idatzitako obran oinarritutako filma. Sevillan, Carmen ijitoak (Paz Vega) Jose sarjentua (Leonardo Sbaraglia) berarekin maitemin dadin lortuko du...

**TOKIA ETA ORDUA.** Egubakoitzean, 22:30ean; zapatuan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean; domekan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:15ean; astelehenean, 19:30ean.

**PUNTUAZIOA:** ●●●●○



### 'BUSCANDO A NEMO'

**ZUZENDARIAK:** LEE UNKRICH, ANDREW STANTON.

**HARIA.** Australiako Koralezko Barrera Handian Marin izeneko arrain bat bere seme bakarrarekin bizi da. Urpekari batzuek Nemo harrapatuko dute eta Marin, hainbat lagunekin batera, semearen bila abiatuko da Sydneyra...

**TOKIA ETA ORDUA.** Eguaztenean, hilaren 25ean, 17:00etan; eguenean, hilaren 26an, 17:00etan eta 19:30ean.

**PUNTUAZIOA:** ●●●●○

OGIZUN
koop. elk.
okindegia



Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53

Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*
Matxiategi 8. BERGARA
Tel. 943 76 15 09

**GABONAK/** Gaztetxoek ondo pasatzeko aisialdi programa zabala antolatu du Udalak Gabonetarako

# Gabonetako kontzertuak irekiko dizkie ateak Gabonetako ekitaldiei bihar, zapatua

MONIKA BELASTEGI

**Bihar hasiko dira Gabonetako ekitaldiak gurean, Gabonetako kontzertuarekin, hain zuzen. Horrek ateak irekiko dizkie ospakizunei, eta horren ondotik beste hainbat etorriko dira. Gaztetxoenek ere ondo baino hobeto pasatuko dute, eurendako ekitaldi ugari dago-eta.**



ARTXIBOA

**Urtero gauza bereziren bat eskaintzen du kontzertuak. Duela bi urte, esaterako, Miguel Gonzalez Bastida omendu zuten.**

Gabonetako kontzertua bihar, zapatua, izango da, 22:30etan, Udal Pilotalekuan. Ohi bezala, emanaldian parte hartuko dute Udal Musika Bandak, Aritzeta abesbatzak, Bergarako Orkestra Sinfonikoak, Bergarako Orfeoiak eta Gabero abesbatzak. Talde bakoitzak bakarkako emanaldia egingo du kontzertuaren lehen atalean, eta, bigarrenean, talde guztiek elkarrekin Haendel-en *Allelujah* obra egingo dute. *Allelujah* berezia izango da, dena den; izan ere, obraren gainean T. Hoshide-k egindako konponketa da biharko emanaldian egingo dutena.

**UMEENDAKO EKITALDI UGARI**

Haurrek Gabonetako oporretan ondo pasatzeko jolasparkea antolatu du Udalak. Honako egunetan egongo da zabalik: abenduaren 22an, 23an, 26an eta 27an, 15:30etik 19:30era. Bestalde, bi ikuskizun ere izango dira jolasparkean: batetik, Kulkiren nekazaritza jokoak ikuskizuna ikusteko aukera egongo da abenduaren 27an, 16:00etan; bestetik, Kiki, Koko eta Moko pailazoek emanaldia egingo dute egun berean, 18:00etan.

Olentzero, Bizar Zuri eta Hiru Erregeak ere hurbilduko dira gurera. Olentzero hilaren 24an etorriko da, eta 18:30ean, San Martin plazan egongo da umeen gutunak jasotzeko. Bizar Zuri eta Hiru Erregeak urtarrilaren 5ean etorriko dira: Bizar Zuri 18:00etan egongo da San Martin plazan eta Hiru Erregeak 19:30ean.

Horrez guztiaz gain, urtarrilaren 1ean, Gari, Lontxo eta Joselontxo pailazoek *Non dago trukoa?* ikuskizuna egingo dute, 18:00etan, Udal Pilotalekuan.

**NAPAR FERIA BIHAR SAN ANTONION**

San Antonioko Gure Ametsa elkarteak ere hainbat ekitaldi antolatu ditu Gabonen atarian. Bihar, zapatua Napar Feria egongo da San Antonion. 10:30ean irekiko dute feria. Nafarroatik etorritako hainbat ekoizle izango da bertan eta zer ikusi eta erosi ugari egongo da. 11:00etan, txistulariak egongo dira giroa alaitzeko, eta 11:30ean, meza egongo da kaperan. 12:00etan, dultzaina jotzaileek txistulariei lekukoa hartuko diete eta 13:00etan, jaiotza lehiaketaren sariak banatuko dituzte. Izan ere, Serafin Esnaola jaiotza eramangarrien lehiaketan parte hartu dutenen lanak ikusgai egongo dira egun horretan, eta irabazleek ere orduan jasoko dute saria. Horren ondoren, 13:30ean, Alai Taldea otxoteak Gabonetako kantuak abestuko ditu. Horrez gain, 12:00etatik 14:00etara bitartean pintxoak egongo dira hurbiltzen diren guztiendako Gure Ametsa elkartean, eta, azkenik, 15:00etan, bazkaria egongo da elkartean.

**ERAKUSLEIHO LEHIAKETA**

Egubakoitzean erabaki zituen epaimahaiak Erakusleiho lehiaketako sarituak. Herriko hiru komertziok jaso dute saria: Ninika lora dendak, Baster jantzi dendak eta Kilika dekorazioak. Bakoitzak 250 euroko saria jasoko du.

**FISC ERAKUNDEA BIHAR KALEAN**

Bergarako FISC gobernuz kanpoko erakundeak postua jarriko du bihar, zapatua, San Martin plazan, 10:00etatik 14:00etara bitartean. Azkeneko urteetan jarri izan du postua FISCek Gabonen atarian. Salduko dituzten produktuak Arrasateko Harreman dendatik ekarriko dituzte, eta produktu guztiak, bai artisautza, baita jatekoak ere, hirugarren munduko hainbat herrialdetakoak dira; hala nola, Peru, Ekuador, Nikaragua eta Kongokoak. Hori horrela, Gabonetako erosketak postu horretan egiteko eskaria egin dute FISCetik, herrialde horietako biztanleei laguntzeko modu bat da-eta.

**EUSKAL PRESO ETA IHESLARIEN ALDEKO EKITALDIAK**

Euskal Preso eta iheslariek aldeko hainbat ekitaldi ere izango dira Gabonetan. Guztiak lelo beraren pean antolatu dituzte: *Euskal Herriaren alde eraginez, euskal presoak Euskal Herrira*, hain zuzen.

Hilaren 24an, Olentzerorekin kantuan abiatuko dira, 08:00etan, Zabala jatetxetik. Gero, bazkaria egongo da Artatse elkartean, eta 19:30ean, elkarretaratzea, San Martin plazan. Abenduaren 26an ere elkarretaratzea egongo da 19:30ean, San Martin plazan, eta abenduaren 28an, Martutenera martxa egongo da. Abenduaren 31n, euskal preso eta iheslarien aldeko brindisa egongo da, 01:00etan, San Martin plazan. Urtarrilaren 2an, elkarretaratzea egongo da 19:30ean San Martin plazan eta urtarrilaren 5ean, berriz, manifestazioa abiatuko da San Martin plazatik, 19:30ean.

*Olentzerok eguaztenean jasoko ditu umeen gutunak, 19:00etan, San Martin plazan*

*Umeendako jolasparkea 23an, 24an, 26an eta 27an zabalduko dute, 15:30etik 19:30era*

*Bizar Zuri 18:00etan egongo da San Martin plazan, eta erregeak 19:30ean iritsiko dira*

## Kontzertuko egitaraua

**UDAL MUSIKA BANDA**
**Zuzendaria: Alfredo Gonzalez Chirlaque**
'Puszta' ........................................(J.V. Der Roost)

**ARITZETA ABESBATZA**
**Zuzendaria: Imanol Urzelai**
'An Irish Blessing' ....................(James E. Moore jr.)
'Maria Maialen' ...........................................(Javi Busto)
'É Treciso continuar' .......................(Luiz Pedro Silva)
'Gabaren erdian' ...............................(Alberto Mitxelena)

**BERGARAKO ORKESTRA SINFONIKOA**
**Zuzendaria: Alfredo Gonzalez Chirlaque**
'Tintin' ..........................................................(D. Brosse)

**BERGARAKO ORFEOIA ETA GABERO ABESBATZA**
**Pianoa: Enrique Txurruka / Saxoa: Jesus Alvarez / Perkusioa: Oihan Vega / Kontrabaxua: Nagore Sanz**
**Zuzendaria: David Azurza**
'Bruremarsj' ...................................................(J.M. Forde)
'Loriak udan ihintza bezala' ..(Herrik. Mold. David Azurza)
'Danny boy' ..........(Irlandako herrikoia. J. Flummerfel)
'Honono' ........................................(Afrikako herrikoia)

**UDAL MUSIKA BANDA / ORKESTRA SINFONIKOA / AITZETA ABESBATZA / ORFEOIA**
**Zuzendaria: Alfredo Gonzalez Chirlaque**
'Allelujah' .......(G.F. Haendel. Konponketak, T. Hoshide)

## Dirua 'Berria'-ri laguntzeko

**Gabonetako kontzertuan jasoko den dirua *Berria*-ri laguntzeko izango dela aurreratu dute Udal iturriek.**

**Horrekin batera, pilotalekuko sarreran mahaia jarriko dute, akzioak eta materiala saltzeko, hain zuzen ere.**

***Egunkaria*-koek proiektu berria martxan jartzeko akzio salmenta eta diru bilketa kanpaina hasi zutenean, herri bakoitzean eskuratu nahi zuten diru kopurua zehaztu zuten; euskaldun kopuruaren araberako diru kopurua, hain zuzen ere. Bergararen kasuan, 48.242 eurokoa da lortu nahi den kopuru hori. Oraingoz, 36.850 euro jaso dituzte eta Debagoien osoko herri bakarra da helburura iritsi ez dena.**




ARTXIBOA

Herria kultura ekitaldiz jantzi eta kalea pizteko nahia dute Herri Mugimenduko kideek.

**GIZARTEA/** 'Piztu Bergara' lelopean asteburu kultural eta aldarrikatzaile definitu dute.

# Asteburuan ekitaldi ugari Herri Mugimenduaren eskutik

MONIKA BELASTEGI

**Hainbat talde eta kolektibok osatzen dute Bergarako Herri Mugimendua. Taldeok batu eta iaz sortu zuten Herri Mugimendua. Oinarrian elkarlana, autofinantziazioa eta antolakuntza dituzte. Euren nahia da herri bizi eta parte-hartzailea lortzea.**

Herriko hainbat talde eta kolektibo batu eta iaz ekin zioten elkarrekin jarduteari. Sorrera hartan hamabostaldi kulturala antolatu zuten. Bide hari segituz, atzo, eguena, hasi eta domekara bitartean izango diren beste ekitaldi sorta bat antolatu dute. Izan ere, euren asmoa da herri bizi eta parte-hartzailea lortzea, eta hori betetzeko asmoz antolatu dituzte asteburuko ekitaldiak.

**'PIZTU BERGARA'**

Asteburu kultural eta aldarrikagarri gisa definitu dute antolatzaileek asteburua eta *Piztu Bergara* leloa jarri diote. Gaur, egubakoitza, antzerkia egongo da gaztetxean, 19:00etan. La Patro taldeak *Lecciones de orgasmo* antzezlana egingo du. Bihar, zapatua, bazkaria egongo da gaztetxean 14:30ean, eta 22:30ean, kontzertua. Etzi, domeka, kalejira egongo da 19:00etan, plazatik abiatuta; leloa: *Herri mugimenduari oztopo gehiagorik ez*.

Taldeko ordezkariek azaldu dutenez, hiru oinarri ditu Herri Mugimenduak: autofinantziazioa, elkarlana eta antolakuntza.

Autofinantziazioari dagokionez, kolektibo bakoitzak bere proiektuak aurrera eramateko beharrezkoa duten dirua lortzeko bideak jorratzea dute helburu. Gaur egun txosnak dira duten diru iturri nagusia, eta bide horri eutsiko diotela azaldu dute.

Elkarlana eta antolakuntza dira beste bi oinarriak. Talde bakoitzak besteek egiten dutenaren berri izatea garrantzitsutzat jotzen dute. Hala, talde bakoitzak dituen tresna eta baliabideak zein diren ezagut ditzakete eta, aldi berean, baita erabili ere.



## Aurrerantzean ere egin daiteke EHNA

Bai Euskal Herriari taldeak aditzera eman duenez, bihar, zapatua, hasi eta zapaturo EHNA egiteko aukera egongo da. Irizar jauregian egongo dira eta interesatuak handik pasa daitezke, 11:30etik 13:30era bitartean. EHNA egiteko, hiru argazki, errolda agiria eta 15 euro bakarrik behar dira.

Bai Euskal Herriari taldeak gehitu duenez, dagoeneko 700etik gora bergararrek dute EHNA. Irudian, zapatuan egindako tramitazio eguneko une bat.

## Autobus geltoki ondoko bizilagunak Udalarekin haserre

E.M.

**Autobus geltoki ondoko Ibargaraiko bizilagunak haserre daude geltokiaren arazoa luzatzen ari delako. Datozen egunotan alkatearekin biltzekotan dira, arazoari irtenbidea topatzeko.**

Autobus geltokia lehen zegoen lekutik kendu zutenean, Udalak probisionalki Ibargaraiko etxe berrien azpian jartzea erabaki zuen. Joan zen urteko udazkenetik Ibargaraiko 48-52 zenbakien parean geratzen dira Pesako autobusak. Hala ere, inguruan bizi diren bizilagunak haserre daude autobusek uste baino zarata handiagoa ateratzen dutelako eta Udalak ez dielako esan oraindik noiz kenduko duten geltokia handik. Era berean, autobusek sortzen duten kutsaduragatik ere kexu dira bizilagunak.

Ibargaraiko bizilagunek hainbat bilera egin dituzte dagoeneko, gai hori aztertzeko eta behin betiko konponbidea topatzeko alkatearekin eta Udaleko ordezkariarekin egon nahi dute.

Bizilagunen ordezkarietako batek zera adierazi digu: "Orain dela zortzi bat hilabete kexua aurkeztu genuen udaletxean eta oraindik ez dugu inolako erantzunik jaso". Geltokira ematen duten etxeetako jabeek bat egin dute auzi honetan.

**KONPONBIDEAREN ZAIN**

Esan bezala, Ibargaraiko bizilagunek lehenbailehen arazoa konpontzea nahi dute. Engainatuta sentitzen dira: "Etxeen enpresa eraikitzaileak eta Udalak ez ziguten ezer aipatu: hasieran aparkaleku publikoak joan behar ziren hor eta etxeak ordaindu eta gero, Udalak geltokia jartzea erabaki zuen".




### Euskal presoen aldeko elkarretaratzea

Aurreko eguenean presoen egoera salatzeko ordu erdiko elkarretaratzea egin zuten LAB sindikatuko hainbat ordezkarik saihesbideko bidegurutzean. LABetik aurreratu dutenez, hilean behin egingo dituzte halako elkarretaratzeak. Hurrengo elkarretaratzearen eguna ezagutzera emango dutela azaldu dute, eta herritarrak hurbiltzera gonbidatu dituzte.

## LABUR

### Gabon gauean eta Gabon zaharrean egunez egingo dute zabor bilketa, gauez beharrean

Debagoieneko Mankomunitateak aditzera eman duenez, Gabon gauean eta Gabon zaharrean zabor bilketa egunez egingo dute, gauez egin beharrean. Hortaz, ez dira hasiko zaborrak batzen 22:00etan, ohikoa den bezala, 14:00etan baizik.

Hori horrela izanik, Mankomunitateak jakinarazi nahi die herritarrei abenduaren 24an eta abenduaren 31n, zaborra eguerdirako ateratzea komeni dela.

Horrez gainera, eskatu nahi die zabor edukiontziak erabiltzea eta edukiontzirik ez dagoen kasuetan zaborra lagatzeko guneak errespetatzea.



## MARISOL MORENOK ESKOLARI AGUR

San Martin ikastetxeko irakasle eta langileek agur afaria eskaini zioten egubakoitzean Marisol Morenori. Marisolek urteak eman ditu bertan irakasle lanetan eta erretiratzeko ordua heldu zaio. San Martin ikastetxean hasi aurretik urte dezente eman zituen Angiozarko eskolan lanean eta azken urteotan, berriz, Bergarako Helduen Heziketa Iraunkorreko Eskolan jardun du. Egubakoitzean 15 bat lagun elkartu ziren Zumelagan egindako afarian eta Marisolek hainbat opari jaso zituen bere lankide izandakoen partetik. Argazkian, erdian, Marisol Moreno, Milagros Gorostola eta Conce Urteagaren artean. Zorionak!



## BERGARAR KOADRILA VENEZUELAN

Bergarako emakume koadrila bat Venezuelan egon berri da, urrian. Caracasen, Andres Bello Unibertsitateko errektore Luis Ugalde eta Eneritz Ibarguren bergararrekin egon ziren. Carapita deritzon osasun proiektuko koordinatzailea da Eneritz. Beraz, Bergaratik joandakoek gida paregabeak izan zituzten. Argazkian, beraien atzetik, Cerro de la Vega izeneko auzoa ikus daiteke. Luis Ugalde han bizi izan zen Caracasera joandako lehenbiziko urteetan. Bergararrekin azaltzen den mutikoa, berriz, Johnny da, Caracas bisitatzeko kontratatu zuten txoferraren semea, hain zuzen.



## SASKIA ANA AZKARGORTARENTZAT

Ana Azkargorta izan da Bodegon Hernandezek antolatutako zozketako irabazlea. Jakingo duzuenez, han jarritako bi kalabaza handien pisua asmatu beharra zeukaten partaideek. Seiehun bat lagunek hartu dute parte lehiaketan eta guztien artean Ana Azkargorta ibili da finen. Bi kalabazok 113,720 kiloko pisua zeukaten (batak 61,220 kg eta besteak 52,500 kg) eta Anak 113,500 kilo zutela idatzi zuen. Beraz, gutxigatik ez du bete-betean asmatu. Sari gisa, Gabon saski ederra jaso zuen Anak martitzenean, Bodegon Hernandezeko jabe Jesus Hernandezen eskutik.



## MUSIKA ESKOLAKO IKASLEAK ALGORTAN

Bergarako Musika Eskolako zazpi ikaslek parte hartu zuten joan zen egubakoitzean, Algortan, Euskal Herriko Musika Eskolen Elkarteak egindako Eguberriko kontzertuan. Iñaki Lagosek zuzendutako Orkestra Txikiarekin Amaia Antonek, Eli Laskurainek eta John Prietok jo zuten eta Gazte Orkestrarekin, Javier Ituarteren zuzendaritzapean, Garazi Garcia, Isuzko Igartza, Jose Migel Etxeberria eta Miguel Angel Maniega aritu ziren. Euskal Telebistako kamerak bertan egon ziren, eta Eguberri egunean emango dute kontzertua, eguerdi aldera. Adi, beraz!

FUTBOLA

# Bergara eta Amaikak Bat aurrez aurre izango dira bihar, zapatua, Agorrosinen

Sailkapenean gauzak estu-estu daude eta Bergarak beharrezkoa du bihar hiru puntuak lortzea. Amaikak Bat sailkapeneko azken tokian dago

EDU MENDIBIL

**Preferente mailako futbol taldeak Debako Amaikak Bat taldea hartuko du bihar, zapatua, Agorrosinen, 15:30ean. Juanina Garai entrenatzailearen arabera, bi partidu jarraian irabaztea falta zaie gora egiteko.**

Sailkapenean, sei puntuko tartearen barruan, hamar talde daude. Hirugarren postuan dagoen Berio taldeak 26 puntu dauzka eta 12. tokian Beti Gazte dago, 20 punturekin. Berioren aurretik, Zarautz liderra (29 puntu) eta Hondarribia (27) daude. Bergara 9. tokian dago, 21 punturekin.

Juanina Garai Bergarako taldeko entrenatzailearen ustez, bi partidu jarraian irabaztea falta zaie: "Bi garaipen lortzeak konfiantza handia emango liguke". Nahiz eta Amaikak Bat sailkapeneko azken tokian egon, Garaik ez du uste biharkoa partidu erraza izango denik: "Ea gure jokoa egiterik daukagun eta hiru puntuak eskuratzen ditugun. Hala ere, ez dugu aurkari erraza izango eta zelaian erakutsi beharko dugu hobeak garela". Hurrengo astean Bergarak Mondra taldeari egingo dio bisita, Atxabalpen. Partidua zapatuan, hilaren 27an, jokatuko da ziurrenik.

**BESTE BI PARTIDU ZAPATUAN**

Zapatuan beste bi partidu jokatuko dira Ipintzan: lehen mailako gazte taldeak Eibartarrak taldea hartuko du 11:00etan eta nesken taldeak Arrasateren aurkako derbia izango du, 17:30ean.

**GAZTE MAILAKO TXAPELKETA**

Ohikoa denez, gazte mailako futbol txapelketa jokatuko da Gabonetan. Abenduaren 29an Eibar eta Aloña Mendi izango dira aurrez aurre eta hilaren 30ean Realak eta Bergarak neurtuko dituzte indarrak. Bi partiduok 17:00etan jokatuko dira Ipintzan. Irabazleen arteko finala abenduaren 31n izango da Agorrosinen, 16:00etan.




OLAIA MONDRAGON

Bihar Amaikak Bat taldea hartu eta gero, hurrengo astean Mondraren aurkako derbia izango du Bergarak Atxabalpen.

# Bergararrak nagusi Aretxabaletako pilota txapelketan

E.M.

Pilotari bergararrak nagusi izan dira urritik hona Aretxabaletan jokatutako eskuz binakako pilota txapelketan. A mailan 12 bikote izan dira lehian eta zapatuko finalean Igor Oruesagastik eta Jose Ignacio Muguruzak 22-15 irabazi zieten Juantxu eta Unai Uriarteri. Oruesagastik Joseba Larrañagarekin batera jokatu du txapelketa, baina Muguruzak haren lekua bete zuen finalean, Larrañaga lesionatuta dagoelako.

B mailako finalean, berriz, Anartz Agirrek eta Xabier Larrañagak eskuratu zuten txapela, Iban eta Argider Isastiri 22-9 irabazita.



ASIER MUJIKA

Jose Ignacio Muguruza eta Igor Oruesagasti (ezkerrean) trofeoekin.



ASIER MUJIKA

Anartz Agirre eta Xabier Larrañaga (eskuman) zapatuko finalaren atarian.

Dietetika eta Nutrizio Kontsulta

- Osasun arazoak
- Balorazio nutrizionala
- Dieta pertsonalizatuak
- Etxez-etxeko zerbitzua
- Ikastaroak

(...) mireia alberdi
DIETISTA-NUTRIZIONISTA

(t) 943 76 60 45
(s) 646 43 34 58
(e) mireialber@euskalnet.net

Olaran etxea, herriko plaza 3
20577 ANTZUOLA

KONDE
PANADEROKUA



Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA

ETXEBERRIA
ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

ESKUBALOIA

# Senior mailako taldea, zapatuan UPV Axis taldeari irabazi beharrean

Joan zen astean Zarautzen galdu ondoren, sailkapeneko 11. tokian dira bergararrak

E.M.

**Bergara KEko senior mailako mutilen eskubaloi taldeak UPV Axis taldea hartuko du bihar, zapatua, Labegaraietako kiroldegian, 19:15ean. Etxekoek hiru puntuak beharrezkoak dituzte sailkapeneko azken postuetatik ihes egiteko.**

Euskadiko Ligan 14 talde dira lehian eta bergararrak 11. tokian dira. Orain arte jokatutako partiduetatik hiru irabazi, bat berdindu eta gainerako zazpiak galdu dituzte. Azken jardunaldian aukera paregabea galdu zuten Zarautzen irabazteko: partidu ona egin zuten arren, 28-24 galdu zuten. Partidua oso berdinduta izan zen eta amaitzeko zazpi minutu falta zirela 24nako berdinketa zen markagailuan. Hala ere, epaileak Asier Muxika kanporatu zuen eta azken lau minututan jokalari bat gutxiagorekin jokatu behar izan zuen Bergarak. Azkenean, ez zuten punturik eskuratzerik izan.



ARTXIBOA

Bergarari bi partidu geratzen zaizkio lehen itzulia amaitzeko.

**BESTE LAU TALDE ETXEAN**

Bestalde, senior mailako nesken taldeak Askartzaren aurka jokatuko du zapatuan, 17:45ean. Domekan, berriz, infantil mailako neskek Aloña izango dute aurrean, 09:45ean, eta ondoren gazte mailako mutilek Donibane hartuko dute, 11:00etan. Azkenik, kadete mailan, Bergara eta Usurbil mutilen taldeak izango dira aurrez aurre, 12:30ean.

PILOTA

## Samaniegok eta Gutierrezek Gipuzkoako finala jokatuko dute gaur Hernanin

Edu Samaniegok eta Igor Gutierrezek Gipuzkoako kluben arteko txapelketako finala jokatuko dute gaur, egubakoitza, Hernaniko pilotalekuan. Jaialdia 20:00etan hasiko da eta kadete eta gazte mailetako finalen ondoren, senior mailakoa jokatuko da. Gutierrezek eta Samaniegok Erroizenea-Argote Añorgako bikotea izango dute aurrean gaurko finalean.

KIROLDEGIA

## Labegaraietako kiroldegia eta igerilekua itxita egongo dira Gabonetako jaiegunetan

Labegaraietako kiroldegia eta Agorrosingo igerilekua itxita izango dira abenduaren 24an, 25ean eta 31n eta urtarrilaren 1ean, Gabonak direla eta. Era berean, Labegaraietako kiroldegia itxita izango da erabiltzaileendako abenduaren 22an, 23an, 26an eta 27an, Gabonetako jolasparkea jarriko dutelako bertan.

KARATEA

## Shotokan taldekoek emaitza onak lortu zituzten Errenteriako Gabon txapelketan

Shotokan taldekoak bikain aritu ziren Errenterian Gabonetako karate txapelketan. Benjamin mailan Haizea Iñarra izan zen lehena eta Jone Agirrezabal 4. geratu zen; alebin mailan, Markel Lopez eta Mikel Aginagalde 4. eta 5. tokian sailkatu ziren; infantil mailan, Aitziber Ferreiro 3. eta Nerea Marzo 4. geratu zen; azkenik, kumitetan, infantil mailan, Andoni Conde izan zen lehena, Kepa Odriozola eta Ugaitz Iruretagoienaren aurretik.

PILOTA

## Gabon sariko finalerdiak eta finalak hurrengo astean Udal Pilotalekuan

Datorren astean Gabon sariko finalerdiak eta finalak jokatuko dira. Astelehenean, benjamin, alebin eta infantil mailetako finalerdiak izango dira Udal Pilotalekuan, 18:00etan. Martitzenean, ordu berean, kadete, gazte eta senior mailakoak jokatuko dira. Finalak, berriz, egubakoitzean, abenduaren 26an, izango dira Udal Pilotalekuan, 16:00etan. Zaleei frontoira hurbiltzeko eskatzen die pilota sailak.

FOTOKIROLA



## Pol-Pol taldearekin eski irteerak

Pol-Pol Mendizale Taldeak Baqueirara eski irteera egingo du, urtarrilaren 23tik 25era. Era berean, otsailean bi irteera egingo dituzte: otsailaren 13tik 15era Luzera eta 27tik 29ra Baqueirara. Martxoan, berriz, Formigalera joango dira, 12tik 14ra arteko aste bukaeran. Azkenik, Aste Santuan, ohiko irteera egingo dute Alpeetara, apirilaren 9tik 17ra, hain zuzen. Argibideak Pol-Poleko bulegoan, 943 76 48 51 telefonoan.

## LABEGARAIETAKO FUTBITO TXAPELKETA

### ASTE BUKAERAKO PARTIDUAK

**ZAPATUAN, KANPOAN**

**09:30:** PDS-Agirrebeña. **Santana**
**10:30:** Santana-K. Piperrak. **PDS**
**11:30:** Torpedo-Fac. **TMT**
**12:30:** TMT-Kalaveras. **Torpedo**
**12:30:** Etengabe-Toten. **Argandolas**
**16:00:** De Resaka-SDTNT. **Torrekua**
**17:00:** Fit-Torrekua. **De Resaka**
**18:00:** Irubide-Dedo Pafarru. **Vervenir**
**19:00:** Vervenir-Pirulotarrak. **Irubide**

**DOMEKAN, KANPOAN**

**09:30:** Txipiron-Belengua. **Errotagain**
**10:30:** Mongatxurrak-Errotagain. **Txipiron**
**11:30:** Argandolas-Canalejas. **Etengabe**

**OHARRA:** Hurrengo jardunaldia urtarrilaren 3an eta 4an jokatuko da.


POL-POL
Taberna
943 76 07 78. Bergara

ETXAGI
JATETXEA
AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...
Masterreka, 8
BERGARA
943 76 53 12

IRURAK MARGOAK
DISEINUAK, S.L.
Era guztietako lanak
Paper pintatuak
Moketa eta sintasola
Harea zorrotada
Iztuku esponjatua
Iztuku faltsua
Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32

# Olentzero Marrazki Lehiaketako irabazleak

Olentzero II. Marrazki Lehiaketa antolatu du Jardun euskara elkarteak Gabonen atarian. Izenak dioen bezala, lehiaketaren oinarria Olentzero margotzea izan da, eta lan hori lehenengo mailatik hasi eta seigarren mailara arteko 750 neska-mutikok egin dute. Herriko ikastetxe guztietako neska-mutikoek hartu dute parte: Aranzadi ikastolakoek, Mariaren Lagundia ikastolakoek, San Martin ikastetxekoek eta Angiozarko herri eskolakoek. Lehiaketa izanik, sarituak ere izan dira: batetik, parte hartu duten marrazki guztien artean politena aukeratu du epaimahaiak eta, bestetik, maila bakoitzeko marrazki politena. Epaimahaiaren arabera, Irati Madariagarena izan da guztien artean marrazki onena (BERRIGARAko azalean eta beheko koadroan agertzen dena, hain justu), eta, horrez gain, bosgarren mailako marrazki onenaren saria ere jaso du Iratik. Era berean, kurtso bakoitzeko marrazki politenak ere aukeratu dituzte: ondoko koadroetan dituzue, hain zuzen, mailaz maila.





GARAZI ZUBIZARRETA
6 urte
Aranzadi ikastola
1. mailako onena






KARMELE URIBESALGO
7 urte
San Martin ikastetxea
2. mailako onena





EGOI GARCIA
8 urte
San Martin ikastetxea
3. mailako onena





IRATI MADARIAGA
10 urte
Aranzadi ikastola
Lehen saria eta
5. mailako onena






OMER GARCIA
9 urte
Mariaren Lagundia
4. mailako onena






LANDER UGARTE
11 urte
Aranzadi ikastola
6. mailako onena





MAITANE GARAI
11 urte
Angiozarko herri eskola
Eskolako lehen saria



## Bergarako margolarien erakusketa ikusgai kultura etxean

Bihar, zapatua zabalduko dute, eta herriko hainbat margolariren lanak egongo dira; besteak beste, Anton Arrillaga, Jose Ramon Aiastui, Juanjo Altuna eta Juan Gonzalez. Erakusketa abenduaren 29ra bitartean egongo da ikusgai, honako ordutegian: astelehenetik egubakoitzera 18:00etatik 21:00etara eta zapatu eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

## KULTURAPILULAK

### Xabier Errasti bidaiariaren diapositiba emanaldia gaur, egubakoitza, Pol-Polen

Xabier Errasti bidaiari bergarararrak diapositiba emanaldia egingo du gaur, egubakoitza, 19:00etan, Pol-Pol mendizale taldearen aretoan. Jardun elkarteak eta Pol-Pol mendizale taldeak elkarlanean antolatu dute emanaldia, Kultur Errotaren bitartez. Errastik *Zirrarak* izeneko emanaldia egingo du.

### Jon Balentziaga margolari eta eskultore bergarararrak erakusketa du ikusgai Eibarren

Eibarko Topaleku aretoan du ikusgai erakusketa. Margolanek osatzen dute erakusketa; akuarelak dira, hain justu: bikiak eta zortzikiak, eta batzuk espresionismoaren olioan egindakoak. Erakusketa abenduaren 21era arte egongo da ikusgai: astelehenetik egubakoitzera, 19:00etatik 21:00etara eta zapatu eta jaiegunetan, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara.

### Martires del Compas eta Loquillo y Los Trogloditas asteburuan Jam aretoan

Gaur, egubakoitza, Martires del Compas Sevillako taldea entzuteko aukera egongo da Jam aretoan, 22:00etan. Sarrerak 13 euro balio du aurrez eta 15 leihatilan. Bestetik, bihar, zapatua, Loquillo y Los Trogloditas taldea hurbilduko da Jam aretora. 22:00etan izango da emanaldia. Sarrera 15 euro da aurrez eta 18 leihatilan.

gelatzu s.l.



Gabon zoriontsuak !!





Zubillaga auzoa 1 • Tel.: 943 71 63 22 • Faxa: 943 78 15 51 • E-maila: gelatzu@gelatzu.com • OÑATI

Zorionak eta urte berri on!

bobinaje
ALZAS
elektrikoak

MOTORE ELEKTRIKOAK
ABIADA HANDIKO INDUZITUEN KONPONKETA

Antigua auzoa 3. ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 14. Faxa: 943 76 62 99




# OLENTZERO URTERO GUREKIN!

**OLENTZERO EGUNEAN, ABENDUAREN 24AN,
11:00ETAN SAN MARTIN ESKOLAN ELKARTUKO GARA
KALEETAN ZEHAR GABON KANTAK ABESTEKO**



**HEMEN HELDU GERADE,
BERRI ON BATEKIN,
GURE ENBAJADORE,
OLENTZEROREKIN**




SAN MARTIN - IPINTZA - M. ALTUNA

BERGARAKO IKASTETXE PUBLIKOAK

San Martin Agirre
herri eskola

Bergarako

musika eskolak

Gabon

jai zoriontsuak

opa dizkizue







musikarekin

gozatuz

BERGARAKO MUSIKA ESKOLA

Espaloia, Z/G - 20570 - Bergara (Gipuzkoa) Tel/ Fax 943 76 57 80

# Udazken kulturala 2003
# Azken txanpa









**2003.12.20, larunbata**
Gabonetako kontzertua egunkariaren alde:
• Antolatzaileak: Udal Musika Banda, Aritzeta abesbatza, Bergarako Orkestra Sinfonikoa, Gabero, Bergarako Orfeoia, Bergarako Musika Eskola eta Bergarako Udala.
22:30ean Udal pilotalekuan.

**2003-12-22, 23, 26, 27**
Haurren jolas parkea Labegaraieta kiroldegian.
Ordutegia: 15:30 - 19:30

**2003-12-24 asteazkena**
Olentzerok umeen kartak jasoko ditu.
19:00etan San Martin plazan.

**2004-01-04 igandea**
Gari, Montxo eta Joselontxo pailazoen "Non dago trukoa?" ikuskizuna.
18:00etan Udal pilotalekuan.

**2004-01-05 astelehena**
Bizarzuri
Umeen kartak jasoko ditu 18:00etan San Martin plazan.
Kabalgata
Errege kabalgata 19:30ean.

UDAZKEN K 2003 KULTURALA

BERGARAKO UDALA



Gabonetako eskaintzak

# Mirari

JANTZIDENDA

Martoko 34 Bergara 943 76 23 93

URTE BERRI ON!



San Juan 1 A,
BERGARA
943 76 54 91
Faxa:
943 76 08 04

# UGARTE

## AROZTEGIA-ALTZARIAK

K-21 KALITATEA 1 Maila

Apainketa • Soruak • Leihoak • Ateak • Horma armairuak









## BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

Orain dela 125 urte, leiho hau dagoen harrizko etxean irakasle, idazle, politiko, euskaltzain oso eta euskaltzale handi bat jaio zen. Nor zen bera?

## GALDEDEBALDE

**1.**
**Norena da Gabonetako kontzertuan eskainiko duten *Allelujah*?**

A/ Haendel.
B/ Mozart.
C/ Verdi.

**2.**
**Zein bikoteren aurka jokatuko dute Samaniegok eta Gutierrezek gaur Hernanin?**

A/ Landa eta Erroizenea.
B/ Argote eta Erroizenea.
C/ Errasti eta Murua.

**3.**
**Ze izen dauka Loquillori azken urteotan laguntzen dion taldea?**

A/ Los Pegamoides.
B/ Los Aristogatos.
C/ Los Trogloditas.

Super BM IFA

Super BMk emandako **30 euroko erosketa-txartela** zozketatuko du BERRIGARAk asmatzaileon artean!

**AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA**

**BERNARDO NUÑEZ**endako izan da 30 euroko erosketa-txartela.
Zorionak, Bernardo! Galderen erantzunak: Bonofotoa: **O que mucho lo de alla o que poco lo de aca** / Galde debalde: **1-A, 2-C, 3-B.**



BONOFOTOA ..................................................

GALDE DEBALDE ....1/....................2/....................3/....................

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO** BERRIGARARA!

IZEN-DEITURAK ..................................................

TELEFONOA ..................................................

**El Mar langostinoak**
20-30, kiloa.

**10,79€**
1.795 pezeta

**Super BMn beti eskaintzarik onenak!**

## BERGARAROSPETSUAK

# Juan Gabiria Olaso

KOLDO PEREIRA

Gabiria dorretxearen IX. jabea eta ahaide nagusia Bergaran jaio zen, 1566. urte aldera. Hala esan zien behintzat San Pedroko parrokoak, Juan Abadek, 1584an, gure on Juan Santiagoren Ordenan sartzeko espedientea bideratzeko Bergarara etorritako zaldun berri-emaileei. Urte hartan bertan zaldun izendatu zuten Madrilen, eta handik gutxira usoen titulua eman zion erregeak. Santiagoren ordenako zalduna eta infanteriako kapitaina izan zen Milanen, bai eta Gabiria dorretxe eta orubeko ondorengoa ere. Etxe hura oso ezaguna izan zen, Antso Abarkaren eta Nafarroa eta Gaztelako beste zenbait erregeren ondoan jardundako zaldun asko eman zituelako.

Felipe III.ak aitoren seme izendatu zuen eta bere lau zaldizainetako bat izan zen. Felipe IV.aren enbaxadorea izan zen Florentziako duke handiaren aurrean, eta Espainiako eta Frantziako erreginen ezkontzen aurreko ekitaldietan gonbidatu ofiziala izan zen.

Gabiriaren armarrian bere ekintza gogoangarrietako batzuk daude irudikatuta. 1649an hil zen.

*Felipe III.ak aitoren seme izendatu eta bere lau zaldizainetako bat izan zen*



ARTXIBOA

**EDEL**
**TAPIZ DENDA**
*Etxerako artikuluetan aukerarik haundiena*
**Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltxak, edredoiak, etab.**
Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.
**Bidekurutzeta 14 BERGARA**

**Aldoka Maldoka**
**TABERNA**
Kruz Gallastegi
BERGARA

**ZABALA**
JATETXEA • OSTATUA

Labegaraieta, Ibarra 14
BERGARA.
Tf. 943 76 20 07 - 76 42 57
**1929az geroztik zure zerbitzura**

*Tarifa pertsonalizatuak*

MAPFRE AUTOMÓVILES

*Zatoz gure bulegoetara eta informa zaitez*

- *Aseguruak*
- *Finantzaketa*
- *Renting*
- *Balio erantsien lantegiak*

**Mapfre**
Errekabarren 3
943 77 11 76
**ARETXABALETA**

**Mapfre**
Garibai etorbidea 16
**ARRASATE**
943 79 89 00
Arrasate pasealekua 37
**ARRASATE**
943 79 71 31

**Mapfre**
Simon Arrieta 3
943 76 18 80
**BERGARA**

**Altube zerbitzuak-Mapfre**
Portu 5
943 78 12 65
**OÑATI**



ARREGI AROZTEGIA




BAITA ERE: Tarimak, parketak • Gradulux pertsiana eta kortina graduagarriak • Flex koltxoiak • Mota guztietako arozlanak

**Tailerra** Urteaga, 20. 943 76 11 73 **Erakusketa** Bidekurutzeta, 38. 943 76 31 03

# Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2003ko abenduaren 19a / 182. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02


## Gabon eguneko kalejirak, kirol ekintzak eta jolasparkea, Gabonetan

ENEIDA ITURBE

**Gabonak gainean ditugu eta eurekin batera hainbat ekitaldi. Hilaren 24an lau kalejirak alaituko dituzte Antzuolako kale eta baserriak. Ondorengo egunetan ez da izango aspertzeko denborarik, umeendako jolasparkea eta zenbait kirol ekintza antolatu dituzte eta.**



A.I.

Herri Ikastetxeko neska-mutilek, urtero bezala, kalejira egingo dute Gabon egunean.

Gabon egunean, ohitura den bezala, hainbat kantu kalejira egingo dituzte herriko zenbait taldek.

Herri Ikastetxeko umeak goizean elkartuko dira, guztiak baserritar jantzita, eta herriko kaletan zehar kantuan ibiliko dira. Aurten, Antzuolako Gazte Asanbladako lagunak ere irtengo dira Gabon eskean. Goizean goiz abiatuko dira eta baserriz baserri ibiliko dira kantuan.

Arratsaldean beste bi kalejira egingo dituzte, bata presoen aldekoa eta bestea herriko abesbatzarena.

**KIROL EKINTZAK ETA JOLASPARKEA**

Abendu amaierako egunetan bi kirol ekintza antolatu ditu Antzuolako Kirol Elkarteak: gazteen aretoko futbol txapelketa eta Xabier Barkero torneoa.

Gazteen aretoko futbol txapelketa hilaren 26a, egubakoitza, eta 28, domeka, bitartean jokatuko dute pilotalekuan. Xabier Barkeroren omenezko torneoa, aldiz, Eztalan egingo da, abenduaren 26 eta 27an.

Umeak Gabon oporretan asper ez daitezen hilaren 29an jolasparkea izango da pilotalekuan. Hiru puzgarri eta buru hausgarriak egongo dira. Goizean 11:00etatik 13:00ak arte egongo da zabalik jolasparkea, eta arratsaldean 16:00etatik 19:00ak arte. Buru hausgarriak birziklatutako materialarekin egindako jolasak dira. Horiek eta puzgarriak Jokulandia taldeak ekarriko ditu, eta begiraleak ere talde horretakoak izango dira.

**ANTZERKIA**

## 'Arrautza delikatuak' antzezlana domekan

E.I.

Antzerkia ikusteko aukera izango da domeka honetan Antzuolan. Hika Teatroak *Arrautza delikatuak* lana aurkeztuko du eskolako aretoan arratsaldeko 19:00etan. Saioa 12 urtetik gorakoei zuzendua dago eta sarrera doan izango da.

Mikel Laskurain eta Belen Cruzek antzezturiko lana da *Arrautza delikatuak*. Taberna batean hasten da istorioa, emakume batek ikerketa bat aurkeztuko die tabernan dauden txikiteroei. Hortik aurrera hiru istorio tartekatuko dira, eta fikzioa fikzioaren barruan kokatuko da. Bi pertsonaiaren bidez arbasoetatik hasi, frankismoa igaro eta egungo garaira arteko ibilbidea egingo dute ikusleek.

Betiere, arrautza delikatuez arituko dira protagonistak. Zer ote dira horiek? Taldekoen hitzetan: "Gure hizkuntza da arrautza delikatua eta zaindu beharra dago, usain ederrik, zapore gozorik eta kolorerik gal ez dezan".




GOIENKARIA

Hika taldeak *Arrautza delikatuak* lana ekarriko du herrira domekan.

**LABUR**

### Hirurogeita zortzi lagunek egin zuten EHNA domekan

Domekan Euskal Herriko Naziotasun Aitorpena (EHNA) egiteko aukera izan zen Antzuolan. Adin guztietako lagunek aprobetxatu zuten aukera hori, eta guztira 68 lagunek egin zuten agiria. Antolatzaileak, Bai Euskal Herriari taldekoak, gustura daude.

### Bihar ez da egongo ipuin kontalaririk liburutegian

Bihar, zapatua, Oihulari Klown taldeko ipuin kontalaria etortzekoa zen liburutegira, baina ez da saiorik egongo. Atzeratu egin dute ekintza hori, eta, orain beharrean, urtarrilean izango dute neska-mutikoek ipuin kontalariaren istorioekin gozatzeko aukera.

### Areto futboleko 24 orduko txapelketa urtarrilaren 9an

Antzuolako Gazte Asanbladak areto futboleko 24 orduak antolatu ditu urtarrilaren 9 eta 10erako. Parte hartu nahi duten taldeek abenduaren 25a baino lehen eman beharko dute izena Larrea edo Mox tabernetan. Talde bakoitzak 30 euro ordaindu beharko ditu eta 5-10 kide izango ditu.

### Liburutegia 22an, 23an, 29an eta 30ean zabalik

Gabonetako oporretan egutegi eta ordutegi berezia izango du liburutegiak. Hilaren 22an, astelehena, 23an, martitzena, 29an, astelehena, eta 30ean, martitzena, egongo da zabalik. Gero, urtarrilaren 7a arte, itxita izango da. Urtarrilaren 7an, 8an eta 9an 18:00etatik aurrera irekiko dute. Gero, betiko ordutegira itzuliko da.



## Erretiratuen karta txapelketa

Erretiratuen lokalean karta txapelketa jokatu dute aste honetan. Astelehenean punttoko eta briskako kanporaketak izan zituzten, lehenengoan zortzi bikote aritu ziren, eta bigarrenean hiru. Martitzenean musean eta tutean egin zuten, musean sei bikotek eta tutean bostek. Eguenean jokatu zituzten finalak, eta, ondoren, parte hartu zutenek afaria egin zuten. /E.I.

KIROLA

# Herriko pilota txapelketako finalak zapatuan jokatuko dituzte

E.I.

**Azken zazpi urteetan bezala, herriko eskuz binakako pilota txapelketa jokatu dute zenbait pilotazalek. Orain, azken txanpan dago txapelketa eta finalak jokatzea besterik ez da geratzen. Horiek bihar, zapatua, jokatuko dituzte, goizeko 10:00etan hasita.**


OLAIA MONDRAGON

**Finalerdietan Biterik eta Unanuek Arbuluri eta Mendizabali irabazi zieten.**

Herriko eskuz binakako VII. txapelketako finalak bihar, zapatua, jokatuko dituzte aurreko asteetako partiduetan sailkatu diren bikoteek. Goizeko 10:00etan bigarren mailako finala izango da: Pagaldaik eta Sanchezek Bastarrikaren eta Zabaloren aurka jokatuko dute. Partidu hori amaitzean lehenengo mailako finala jokatuko dute Oruesagasti eta Muruamendiaraz elosuarrek Biteriren eta Unanueren aurka. Bi partiduak amaitzean sari banaketa egingo dute.

Guztira hamazazpi bikotek hartu dute parte txapelketan. Azaroaren 1ean jokatu zituzten lehen partiduak, eta pasa den zapatuan izan ziren finalerdiak. Antolatzaileak oso gustura daude, parte-hartzea handia izan delako eta jokalariek ez dutelako hitzorduetara kale egin. Datorren urterako aldaketaren bat egitea ere pentsatzen ari dira; beharbada ,bi mailatan aritu beharrean bakarra egongo da hurrengoan.

RESOAK

# Eltzikortari eta Karmeni, postalak

mnistiaren aldeko mugimentik bultzatzen ari dira preso uden bi herritarrei, Karmen Irirri eta Jose Luis Erostegi *Eltzirta*-ri, Gabonetako postalak idaltzea. Nahi duten herritaek seilua eta helbidea jarrita tuzten postalak eskuratzeko ukera dute. Bihar, zapatua, presen aldeko materiala saltzeko postua jarriko dute herrian, eta an erosi ahal izango dira postak. Salmenta postua Zurrategin jarriko dute arratsaldeko 17:00etatik 20:00ak bitartean. Eguraldi txarra izanez gero, udaletxe azpian egongo da.

Karmen Irizar Martuteneko kartzelan dago 2001eko uztaila ezkero. Beste hiru bat urte eman beharko ditu, bost urte eta sei hilabeteko zigorra baitu. Aspaldian, Martuteneko zenbait preso kanpoko kartzeletara eraman dituztenez, Karmen ere eramango duten beldur dira familiakoak. *Eltzikorta* Ciudad Realen dago, Herrera de la Mancha kartzelan.

LABUR

## Urtea amaitu eta hasteko Aizkorrira eta Arrolara irteerak egingo ditu Arrolak

Arrolak urtea hasi eta bukatu mendian egingo du. Ohitura den bezala, abenduaren 31n Aizkorri igoko dute mendizaleek eta urtarrilaren 1ean Arrolara joango dira. Aizkorrira joan nahi dutenek goizeko 08:00etan plazan egon beharko dute. Urtarrilaren 1ean Arrolara taldean igo nahi dutenek, aldiz, goizeko 09:00etan egon beharko dute plazan. Goian, salda eta txorizoa banatuko dituzte.

## Elayk euskararen normalizazioaren alde egindako lana saritu du Aldundiak

Elay Taldeak Anton Abbadia Saria jaso zuen atzo, eguena, enpresan euskara bultzatzeagatik. Xabier Laka eskultoreak sortutako dominarekin eta 12.020 eurorekin saritu du Gipuzkoako Foru Aldundiak enpresa. Duela hamabi urte hasi zuen Elayk euskara plana, eta enpresa euskaratzen aitzindari izan da. Aldundiko Kultura eta Euskara Sailak sari hau euskararen normalizazioaren aldeko lanetan nabarmendutako pertsona edo elkarteei ematen die.

KIROLA

## PARTIDUAK

**FUTBOLA**

**Abenduak 20**

**12:00:** Antzuola-Eibartarrak B (Gazte.)

**15:30:** Antzuola-Ikasnerri (2. erreg.)

**Abenduak 21**

**12:00:** Antzuola-Aretxabaleta B (Kade.)

## EMAITZAK

**FUTBOLA**

**Legazpiko gaztetx. 1 Ant. 2** (2. erre.)

**Urki 10 Antzuola 2** (Kadeteak)

**Antzuola 0 Eibartarrak 11** (Neskak)

**PILOTA**

**Gipuzkoako Txapelketa**

Lagunak-Olalde (eskuz inf.). . . . **18-11**

Goierri-Olalde (eskuz nagusiak). **22-11**

Olalde-Zumaia (paletaz nagu.) . **35-27**

LEKY-BERRI MERENDEROA
Janariak eta edariak
Tf. 943 76 60 94
ANTZUOLA

DEKORAZIOA
ABAD
PINTURAK
ANTZUOLA
PAPER PINTATUAK
Jose Gomez Abad
Errekalde 6, 4-B.
Antzuola
943 76 60 19
943 76 60 43
Faxa:
943 76 60 19
INDUSTRI MANTENIMENDUA

EGAÑA
Era guztietako arotz lanak
Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatu eta barnizatuak
Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

# Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2003ko abenduaren 19a / 166. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegi • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95




IBAN ARANTZABAL

Obretarako bidea egiteko txabola bat bota egin beharko dute.

# Torrealdeko etxeak egiteko bidea eraikitzen

IRATI AGIRREAZALDEGI

**Torrealdean aurki hasiko dira lehen etxebizitzak eraikitzen. Horretarako, ordea, kamioiak eta makinak bertara gerturatzea beharrezkoa da, eta asmo horrekin Berraondokuako aparkalekutik Torrealdera artean bide bat egiten hasi dira asteon.**

Torrealdean etxeak egiteko asmoa aspaldikoa bada ere, oraindik ez dira eraikuntza lanetan hasi. Guztira, 76 egingo dituzte, bost bloketan banatuta. Lehenengo, 16 etxebizitzako bloke bakarra eraikiko dute. Promozio librekoak izango dira etxe hauek, eta honen ostean egingo dituzte gainontzeko 70 etxeak, horietatik 50 libreak izango dira eta 20 babes ofizialekoak.

Obretan aurki hasiko badira ere, etxeak eraikitzeko makinak eta kamioiak sartu behar dira Torrealdeko lurretara eta horretarako bide bat egingo dute Berraondokuan dagoen aparkalekutik Torrealdera bitartean.

Lanetarako bide hori egiten ari diren bitartean ezin izango dira autoak utzi Berraondokuko aparkalekuaren zati batean. Hala, auto askorendako lekua kenduko dute obretarako pasabidea egin bitartean.

**BIDEA ORTUETATIK**

Aparkalekuko zati bat denboraldi baterako kentzeaz gain, inguru horretan dagoen txabola bat ere botako dute gutxienez.

Torrealdean eraikuntza lanetan ibiliko diren kamioiak eta makinak lehen ortuak zeuden lekutik sartu eta aterako dira. Beraz, baratzak ere ezin izango dira aurrerantzean erabili.

Astelehenean hainbat neurketa egin ostean, martitzenean bidea egiteko lanak hasiak ziren. Bidea prestatu eta gero 18 hilabete dituzte obrak amaitzeko.

*Torre etxearen alboan ere obretan ibili dira Uriarte auzoko ur hornidura hobetzeko*

Obretarako egindako bidea behin-behinekoa bada ere, Udaletik jakinarazi digutenez balitеke Torrealdeko etxeak egin ondoren inguru hori urbanizatzean bidea hortik bertatik joatea, baina hori oraindik zehazteke dago, eta lanak aurrera joan ahala hartuko dute erabakia.

**URIARTE AUZORA URAK**

Berrandokutik Torrealderako bidea ez da Elgetan azkenaldian egiten ari diren lan bakarra. Izan ere, aste honetan bertan Torre etxearen alboan hainbat seinale ipini dituzte, obrak direla eta.

Uriarte auzora ura eramateko proiektuaren lehen fasea amaitzear da behin hodi guztiak eta estoldak ipini ondoren, herriko uren azpiegiturarekin egin behar dute lotura. Hori da, hain zuzen ere, egun hauetan autoendako zati batean karril bakarra lagatzearen arrazoia.

Torrealdeko lanekin eta Torre alboan egiten ari direnekin obrarik ez da falta herrian. Batzuk etxeak egiteko dira eta besteak, berriz, Uriarte auzoko zenbait baserritako ur hornikuntza hobetze bidean jartzeko.

**GABONAK**

# Olentzero Lehiaketa bihar arratsaldean

Gabonak gainean direnez, gaur, barikua, piztu dituzte jaiegun hauetarako propio ipinitako argiak lehen aldiz plaza inguruan. Guztira, 350 bonbilla jarri dituzte, eta 1.500 euro ordaindu beharko ditu Udalak argiengatik.

Baina argiek soilik ez diete emango Gabon itxura herriari aurten. Izan ere, bihar, zapatua, Olentzero Lehiaketa izango da. Partaideek plazara eraman beharko dituzte lehiaketarako prestatutako Olentzeroren irudiak arratsaldeko 18:00etarako. Herritarrek ez ezik epaimahaia osatuko duten lagunek ere lanak ongi aztertzeko aukera edukiko dute, gero onena hautatzeko.

Sariak, ordea, ez dira abenduaren 23ra arte banatuko. Egun horretan, gainera, Olentzero etorriko da Elgetara, arratsaldeko 18:30ean, umeek idatzitako gutunak jasotzera.

**PARKEA**

Bestalde, umeendako parkea ipiniko dute urtarrilaren 2an eta 3an arratsaldez kiroldegian. Karaokea, eskulanak egiteko aukera, rokodromoa... izango dira.



## Banatzaile berriak GOIENKARIAk

Gaurtik aurrera hiru elgetar arduratuko dira barikuetan, arratsaldeko 16:00ak eta 18:30ak bitartean GOIENKARIA herriko postontzietara banatzeaz: Janire Lazkano, Maialen Arantzeta eta Ane Elortza, hain zuzen ere. Bestalde, banaketa arduradunak jakinarazi digunez, norbait lan honetarako prest egongo balitz 943 71 23 91 telefonora dei dezake./I.A.

## LABUR

### Pilotako finalerdiak jokoan gaur iluntzean

Helduentzako lau t'erdiko pilota txapelketa azken txanpan da. Gaur, abenduak 19, finalerdiak jokatuko dira Udal Pilotalekuan, 20:30ean hasita. Lehen partiduan Arantzabalek eta Telleriak Moralesen eta Zenitagoiaren kontra jardungo dute. Bigarrenean, Koldok eta Txapelek Arantzetarren aurka. Bi partiduak amaitu ostean jakingo da zein bikotek jokatuko duten finala abenduaren 31n. Bestalde, herriko pilotari gaztetxoek ere txapelketa jokatuko dute Gabonetan. 50 umek eman dute izena. Kanporaketak hilaren 29an eta 30ean jokatuko dira eta finalak Gabon zahar egunean izango dira.

### Sarrerarik ez Takolo, Pirritx eta Porrotx ikusteko

Eibarko ...eta Kitto! Euskara Elkartetik jakinarazi digutenez, bihar, hilak 21, Eibarren izango diren Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoen bi emanaldiak ikusteko ez da sarrerarik geratzen. Gainera, egunean bertan ez da sarrerarik salduko Unibertsitate Laboralean. Beraz, ekitaldirako aurrez sarrerak erosi ez dituzten elgetarrei esan nahi diete bertara joanez gero ezin izango direla sartu.

### Azkenean, elizako erlojua konpondu egingo dute

Abuztua ezkero geldi egon eta gero, elizako erlojua konpondu egingo dute azkenean. Herritar batek emango ditu erloju publikoa konpontzeko behar diren 5.000 euroak. Horretarako baldintza bat ipini du: orain dagoen erlojua uztea. Izan ere, Udalak erloju publikoa berriz martxan ipintzeko egin zuen proposamenetako bat beste ordulari bat erostea izan zen.

## TRAFIKOA

# Isuna ipiniko diete datorren urtetik aurrera San Roke kalean gaizki aparkatzen dutenei

I.A.

**San Roke kalearen goiko partean dagoen seinale batek oinezkoei lehentasuna ematen die eta ibilgailuetako gidariak hainbat arau betetzera behartzen ditu. Gainera, datorren urtetik aurrera, bertan gaizki aparkatzen duten autoei isuna ipiniko diete.**

San Rokera goiko partetik sartuz gero, S-28 zirkulazio seinalea ikusiko dugu. Etxe berriak eraiki zituztenean –urte hasieran– ipini zuten, baina oraindik jende gutxik ulertzen du seinalearen esanahia. Hori dela eta, Udaletik azalpena eman dute, baita jakinarazi ere datorren urtetik aurrera seinaleak dioena ez betetzeagatik isunak ipiniko dituztela.

Seinaleak adierazten du San Roke kalea zirkulazio-gune berezi egokitua dela, bertan oinezkoek dutela lehentasuna, eta zirkulazio-gune osoa erabili ahal izango dutela. Ondorioz, ibilgailuen gehienezko lastertasuna 20 kilometro ordukoa izango da, eta aparkatzeko markatutako guneak bakarrik erabiliko dira, Bestalde, gune horretan jolastea eta kirola egitea libre da, baina era berean, oinezkoek ez dituzte gidariak alferrik oztopatuko.

**ISUNA**

Herriko auto gidariek ez dute itxuraz seinale horrek dioena errespetatzen. Horren aurrean, Udalak informazioa San Roke kaleko postontzi guztietan banatzea erabaki du.

Ohar horretan seinaleari buruzko azalpenak emateaz gain, datorren urtetik isunak ipintzen hasiko direla ere adierazi dute.

Gaur egun, kale horretan gaizki aparkatzen duten ibilgailuetan idatzi hau bera lagatzen dute, gidariak seinale berrira ohi daitezen.

Baina 2004tik aurrera, oharraren ordez, isuna aurkituko dute autoa gaizki lagatzen duten gidariek.



I.A.

San Roke kalearen goiko partean ipini zuten urte hasieran S-28 seinalea.

## ERRETIRATUAK

# Erretiratuendako luntxa eta irteera

I.A.

**Erretiratuen biltokiko zuzendaritza batzordeak hainbat ekitaldi antolatu ditu datozen egunetarako. Batetik, luntxa izango da bihar arratsaldean, eta bestetik, nahi dutenendako Donostiako Santo Tomasetako azokara irteera egongo da domekan.**

Erretiratuen elkarteko zuzendaritza batzordeko kideek bilera egin zuten joan zen hilaren 10ean, eta bertan hainbat ekintza antolatu zituzten. Batetik, bihar, hilak 20, Gabonen aitzakian elkarteko bazkide guztiendako luntxa izango da arratsaldeko 17:00etan.

**SANTO TOMAS**

Bestalde, Santo Tomas egunean, abenduaren 21ean, Donostiara irteera egingo dute erretiratuek, azoka ikusteko.

Goizeko 09:00etan plazatik abiatu eta 13:30ak bitartean Donostian ibili ostean, eguerdiko 14:30ean Orioko Altxerri jatetxean bazkalduko dute. Bidaia eta bazkaria 20 euro izango dira.

Izena emateko azken eguna gaur, abenduak 19, da eta interesatuek Miren Villarrengana jo beharko dute.



I.A.

Gabonak ospatu eta erretiratuak elkartzeko luntxa izango da bihar, zapatua.

SAIOA ARANZABAL
MASAJEAK
ELGETAN, DOMINGO ITURBE 10ean
Kiromasajea •
Reflexologia •
Hidromasajea •
Kirol masajea •
Podologia •

• Solariuma
• Drenaje linfatikoa
• Algekin eginiko estalkia
• Depilazioa laser bidez
Dei ezazu 646 50 00 29 telefonora ordua eskatzeko

Aperribay, s.l.
Marmoldegi eta granitoak
Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21
20690 ELGETA

BOLATOKI
Eguneko menua
Asteburuan menu bereziak
Plater Konbinatuak, ogitartekoak eta kazuelatxoak
Karta eta babarrun-jana enkarguz
Artekale 2, ELGETA. 943 76 82 84

ERRETRATU ZAHARRA

BERGARA

# Osintxuko lagunak, 1920 aldera

Alboko argazkian agertzen diren lau neskak Osintxun bizi izandakoak dira. Zutik azaltzen direnak Paulina Mardaras eta Dominika Lizarralde dira eta eserita daudenak, berriz, Mikaela Mardaras eta Vicenta Lizarralde. Lauretatik Vicenta Lizarralde da bizi den bakarra. Argazkiak 70 inguru ditu eta orduan 20 bat urte izango zituzten laurek. Mardaras ahizpak Lazpiur baserrikoak dira eta Lizarraldetarrak jatorriz Elosuko Narbaiza Azpikua baserrikoak. Paulina kenduta, beste hirurek Artetxe lantegian jardun zuten lanean.

Jabier Astigarraga Mikaelaren semeak laga digu argazkia. Badirudi sasoi hartako argazki estudioren baten ateratakoa dela. Baliteke Eustakio Agirreoleak Barrenkalean zuen estudioan ateratakoa izatea, datu hori konfirmatzerik izan ez diguten arren. Ikusten duzuenez, ederki asko jantzi ziren Osintxuko lau lagunak argazkia ateratzeko.

Gona, alkandora eta lepo-zapi dotore-dotoreekin hor ditugu laurak baserritar jantzita. Beraien atzean ez da falta giroa sortzeko estudioko argazkia. Dudarik ez, gaztetako oroitzapen polita izango zuten argazkiarekin.

**Argazkia**: Jabier Astigarraga



**ADI, IRAKURLE!**

**Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero,**
zatoz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera.
Zain gaituzu!

TELEIXA BILTEGIAK
Eraikuntza materialak
Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tf. 943 76 27 93

disdira
ile apaindegia
edertze gela
Masterreka 7
BERGARA
943 76 00 55

ezpeleta
Ostalaritzarako ehungintza
Ostalaritza eta egoitzetarako mahai-zapi eta industri-ehunak
San Lorentzo 1, Bergara
Tf. 943 76 28 77
Tf. eta faxa: 943 76 17 09

Ganbara
TABERNA
Heure erara ibiltzeko!
Irala z/g.
BERGARA
Tel. 943 76 55 75


IRRiNTZi
kafetegia
Irala 3. BERGARA
Tel.: 943 76 48 26

DEBA GARAIA
INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA
Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telesforo Aranzadi 2 behea
943 76 21 80 / 943 76 06 37


JAUJA KIROLAK
Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

GARRAIOAK
ANDUZU
TRANSPORTES
BERGARA
607 349 043

Grua zerbitzua
Zerbitzu publikoa eta era guztietako kargak

Jose M. Martin
pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industriala
Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 /
666 517 295

UREDERRA
ITURGINTZA
Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta
Arruriaga 11
686 943 918



**Andsky kamiseta eta prakak**
BOLINTXO KIROLAK
Ibargarai 10




**Sony kamera digitala**
ARGAZKI
Barrenkale 16



**Belarritakoak, lepokoa eta eraztuna**
HARAIA ZILARREZKO BITXIAK
Boni Laskurain 4



**Prakak, kamiseta eta jaka**
XUXU JANTZIDENDA
San Pedro 14



**Passionata lentzeria**
GANTXEGI MERTZERIA
Telesforo Aranzadi 2

# Gabonetan, bai ederki herriko dendetan



**Skunk funk jaka**
NINFA JANTZIDENDA
Ibargarai 6



**Lottusse zapatak**
GALARRETA OINETAKOAK
Irizar 2

GRUPO ARKAUZ

1950-2003

zure etxea da















ARKAUZ ALTZARIAK

Araba etorbidea 20
Tel./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA

ETXE MOBEL MUEBLES ALTZARIAK

Araba Etorbidea 5
Tel./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE

ARKAUZ SUKALDE INTEGRALA

Mitarte 3
Tel./Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA

FAGOR

ARKAUZ ELEKTRAGAILUAK

Andramari auzunea 1
Tel./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA

expert